

Zimurrak



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Kataluniako *Critic* egunkarian nire liburuen harira (*10 ingobernables, historias de transgresión y rebeldía* / Libros del K. O.) egin didaten sako-neko elkarrizketa argitaratu dute. Oso harro egon beharko nuke. Eta bana-go. Baina onartu behar dut, argazkiak ikusterakoan sastada bat sentitu nuela. Itsusia baino, nire aurpegia zaharkitua ikusi dut.

Feminista izateak eskizofrenia puntu bat dakar. Aginte sexistak zalantzan jartzeak ez du gure garunetik kanporatu ditugula bermatzen. Aingeruaren eta deabruaren orde, buruan beste bi ahots ditut nire arreta mantentzeko lehian. Elkarrizketaren hitzordura joan nintzenean, nire aingeru feministak hauxe esan zidan: “Zure diskurtsoa da garrantzitsuena, ez ezazu denborarik galdu makilatzen. Zu zeu zaren bezala agertu”. Baina argazkiak ikusi nitue-nean, genero poliziaren deabruak ozen dio: “Makilatu izan bazina, zimurren kontrako krema erabili izan bazenu, ile zuriak tindatu bazenu...”

Gizonen gero eta gehiago pairatzen duten gaztetasunaren eta estetikaren tirania kapitalista zama historikoa da emakumeontzat gaur egun. Diskurtsoa argi daukat eta nire liburuan luze azaldu nuen, Pierre Bordieu eta Naomi Wolf bezalako egileen eta lodifobiaren kontrako hainbat ekintzaileen eta taldeen (La Cerda Punk, Stop-Gordofobia, Ramonak) hitzak erabiliz. Emakumeok haurtzarotik ikasi dugu irudikapen heterosexualaren arabera ederrak, argalak eta gizonentzat desiragarriak izan behar dugula. Emakumezko aktoreekin, politikariekin, kirolariekin agertzen diren komentarioek etengabe gogorazten digute gure gorputzak epai publikoaren mende daudela.

Nikaraguako komunikatzaile María Félix lodiaren analisia ekartzen nuen: “Gure itxurarekiko kezka diru, denbo-

Feminista izateak eskizofrenia puntu bat dakar. Aginte sexistak zalantzan jartzeak ez du gure garunetik kanporatuko ditugula bermatzen. Aingeruaren eta deabruaren orde, buruan beste bi ahots ditut nire arreta mantentzeko lehian

ra eta buru-lan inbertsio handia dakartza, eta emakumeak sozialki desaktibatzeke modu bat da”. Gu desaktibatzeke ez dugu erasotzaile edo zapaltzaile zuzenik behar. Guk geuk gure osasun

fisikoa eta emozionala, gure askatasuna, zorientasuna eta boteretzea kalte-tzen dituzten neurriak hartzen ditugu: dietak, kirurgia, takoi altuak, astindu psikologikoa. Indarkeria sinbolikoa deitzen zaio horri.

Andrea Momoiok artikulu ausart batean onartzen zuen diskurtso feminista barneratuta izan arren, oraindik ere loditzearen beldurrarekin bizi dela: “Emakume guztiok gure gorputzarekin daukagun amodio-gorrito harremana guda sozial bat da, nahiz eta norberak bere buruaren kontra borrokatu”, azpimarratzen zuen.

Fatema Mernissi Marokoko idazlea- ren esanetan, arabiar munduko emakumeak kontrolatzeko espazioa erabiltzen du patriarkatuak (esaterako, etxetik kanpo beloa erabiltzeko agintearen bidez). Emakume europarrak kontrolatzeko, ordea, denbora erabiltzen du patriarkatuak: gazteak ez diren emakumeak ikusezin bihurtuz.

Gure gorputzekiko bigilantzia eten nahi dugun arren, gure zimurrak, ile zuriak eta kiloak onartzen saiatuta ere, gure inguruko emakumeekiko bigilantzia gupidagabea ez da inondik inora eteten. *Critic*-eko elkarrizketa irakurri eta pare bat egunetara amamari bisita egin nion; begiaren ingurua ukitu zidan: “Zimur pila atera zaizkizu. Kontrako kremaren bat erosi beharko zenuke urtetan aurrera joan ahala”. Sast! Nola ez sentitu sastada hori?

Feminismoak ematen dizkigun argudio arrazional eta etimologikoak ez dira nahikoak halakoetan gure emozioak aldatzeko. Agian, María Félixen esaldi hau da lagungarrien iruditzen zaidana: “Nire gorputza nire amaren gorputzaren oso antzekoa da. Nire gorputzaz arnegatuko banu, nire amaren, nire amamaren, nire arbasoen gorputzez arnegatzen ariko nintzake. Neure buruaz ere arnegatzen ariko nintzake”. ■